

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Gizarte Ekintza Saila**

Gizarte Ekintzako foru diputatuaren 51527/2026 FORU AGINDUA, abuztuaren 6koa, zeinaren bidez onesten baitira iraupen luzeko zainketak pertsonalizatzeko jardunbide egokien aintzatespenak arautzen dituzten oinarriak eta aintzatespen horien 2026rako deialdia onesten baita.

Duintasunaren aitorpena, eskubideen ikuspegia eta pertsonalizazioaren beharra funtsezko bektoretzat dituzten iraupen luzeko zainketen trantsizio-testuinguruan, Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatu eta aintzatesi nahi ditu zorionez gero eta erakunde eta profesional gehiago martxan jartzen ari diren zainketa-praktikak eta zaintzeko erak, xede hau dutenak: laguntza-premia duten pertsonen arreta ematea sustatzea eta arlo horretan aurrera egitea, haien interesak eta lehentasunak kontuan hartuta eta haien benetako parte-hartzearekin baita.

OMEk (Osasunerako Mundu Erakundea) jasotzen duenez, iraupen luzeko zainketak zaintzaile ez-formalek (famiak, lagunek edo bizilagunek) edo profesionalek (sanitarioek, gizarte-laguntzaileek edo bestelakoek) edo biek egindako ekintzen sistema dira, eguneroko bizitzako oinarriko jarduerak modu independentean egin ezin dituen pertsona batek ahalik eta bizi-kalitaterik onenari eustea lortzeko, norberaren lehentasunen arabera eta ahalik eta autonomia, parte-hartze, errealizazio pertsonal eta giza duintasun handienarekin.

Testuinguru horretan, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak Iraupen Luzeko Zainketetan pertsonalizatzeko praktika egokiak aitortzeko deialdiak egiten hasi zen 2022. urtean, Bizkaian arlo horretan zerbitzuak ematen dituzten erakundearen artean praktika egoki horiek aitortzen, zabaltzen eta trukatzeko laguntzeko.

Jarduketa-ildo hori bultzatzen jarraitzeko helburuarekin, foru agindu honen bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Iraupen Luzeko Zainketak pertsonalizatzeko jardunbide egokiak aitortzeko 2026. urterako oinarri arautzaileak eta deialdi publikoa onesten dira.

Hori dela bide, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauan eta Gizarte Ekintza Sailaren Araudi Organikoa onesten duen ekainaren 26ko 67/2025 Foru Dekretuan emandako ahalmenak erabiliz, honako hau.

XEDATZEN DUT:**Artikulu Bakarra. — 2026rako oinarri arautzaileak eta deialdia onestea**

Foru agindu honen bidez Iraupen Luzeko Zainketak pertsonalizatzeko jardunbide egokien aitorpenen 2026. urteko oinarri arautzaileak eta deialdia onetsi da, foru agindu honi I. eranskina bezala gehitzen zaizkion oinarri arautzaileekin bat etorriz.

AZKEN XEDAPENAK**Azken Xedapen Bakarra. — Indarrean jartzea**

Foru agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2026ko abuztuaren 6an.

Gizarte Ekintzako foru diputatua,
AMAIA ANTJUSTEGI ZIARDA



«I. ERANSKINA

IRAUPEN LUZEKO ZAINKETAK PERTSONALIZATZEKO JARDUNBIDE EGOKIEN AINTZATESPENEN 2026KO DEIALDIAREN OINARRIAK»**Lehenengo oinarria. — Xedea**

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak, Bizi-luzetasunaren eta Erronka Demografikoaren Zuzendaritzatik, iraupen luzeko zainketak pertsonalizatzeko jardunbide egokiak aintzatespenak ezartzen ditu. Helburua da Bizkaiko Lurralde Historikoan zerbitzu horiek ematen dituzten erakundeen artean arreta pertsonalizatuko jardunbide egokiak aintzatesten, zabaltzen eta trukatzeko laguntzea.

Bigarren oinarria. — Erakunde hartzaileak

Aintzatespenak Bizkaiko Lurralde Historikoan zerbitzuak ematen dituzten eta honako baldintza hauek betetzen dituzten erakunde publiko zein pribatu guztiei zuzenduta daude, baldin eta erakunde horiek iraupen luzeko zainketen eremuan lan egiten badute, bai etxean, bai eguneko zentroetan edo egoitza-zentroetan:

- a) Legez eratuta egotea eta jarduerari buruzko araudian ezarritako baldintzak betetzea.
- b) Deialdi honen hartzaile diren pertsonak artatzeko helburua izatea estatutuetan.
- c) Eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen, Bizkaiko Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroan inskribatuta egotea, Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 26ko 62/2002 Foru Dekretuaren arabera.
- d) Adinekoentzako egoitza-zentroen kasuan, mendekotasuna duten pertsonen arreta eta zaintza ematearen arloko arau-hauste larria edo oso larriagatik administrazio-zehapen irmorik jaso ez izana, deialdi hau argitaratu aurreko bi urteetan.

Hirugarren oinarria. — Praktika egokiak egiaztatze eremuak

1. Erakunde hautagaiek iraupen luzeko zainketetako arreta pertsonalizatzeko jardunbide egoki bat (edo bat baino gehiago) egiaztatu beharko dute. Jardunbide horri esker, erakundeak berak bere zerbitzuen eraldaketan, arreta- eta kudeaketa-ereduan aurrera egiteko aukera izan beharko luke, bai eta emaitza neurgarri eta garrantzitsuak izan ere, bultzatu nahi diren ardatz egituratzaile hauei dagokienez:

- a. Arreta eta bizitza pertsonalizatuko planen aurrerapenak, eraldaketak, garapenak eta zehaztapenak, zainketak eta laguntzak antolatze, norberaren autonomia eta autodeterminazioa bultzatuz eta pertsonaren parte-hartzearekin, zuzenean edo modu ordezkatuan, egindako bizi-proiektu egoki bati eutsiz.
- b. Eguneroko bizitzan jarduera eta errutina esanguratsuak ahalbidetzean zentratutako proposamen berritzaileak, ordutegiak eta eguneroko jarduerak antolatuz, egoiliarren interesetatik, lehentasunetatik, erritmoetatik, ohituretatik, espazioetatik eta harreman esanguratsuetatik abiatuta, aurreko nortasunari jarraipena emateko, eta harreman- eta okupazio-aukera egokiak eskaintzeko, zentzuzkoak eta ongizatezkoak.
- c. Jardunbide egokiak zaintzaren harreman-ikuspegian, mendekotasun-egoeran/degaitasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeko harremanetan inplikaturako pertsona guztien artean (profesionalak, familiak, hurbilekoak...) harreman egokiak sustatzen dituzten ekimenekin, komunitatera irekitzeko ikuspegiarekin, eta pertsonen duintasuna eta eskubideak aitortzean zentratuta, tratu onarekiko konpromiso profesionalaren eredu batetik.
- d. Antolaketa eta kudeaketa hobetzeko ekimenak, pertsonalizazioa erraztuko dutenak; kudeaketa-sistema malguak, autonomia, pertsonen autodeterminazioa eta zainduen ongizate emozionala, senideekin eta hurbilekoekin dituzten harreman esanguratsuak, erosotasuna, nortasuna eta ohiturak sustatuko dituztenak, hala nola langileen txandakatzeko minimizatzea, ordutegi eta araudi malgu eta pertsonalizatuak erraztea, etab.



- e. Esku-hartzean eta zerbitzuetan teknologia berritzaileen erabilera integratzen duten ekimenak, pertsonalizazioa, autonomiaren eta independentziaren garapena eta ongizatearen eta segurtasunaren hobekuntza bultzatzeko.
- f. Aurrerapenak eta jardunbide egokiak zaintzak eskaintzen diren espazioetako (etxea, eguneko zentroak, bulegoak, egoitzak, etab.) arkitekturan eta giroan: ingurune erosoak, pertsonalizatua eta espazio horretan bizi diren edo zaintzen dituzten pertsonen bizimoduetara egokituak sustatzera bideratutako ekimenak, zainduen segurtasuna eta orientazioa erraztuko duen giroarekin.
- 2. Kategoria bakoitzeko aintzatespen bat emango da, gehienez 2 erakunde bakoitzeko, baina ebaluazio-batzordeak beste aintzatespen edo aipamen batzuk emateko eska dezake, modu arrazoitu eta ezohikoan.
- 3. Ez da kontuan hartuko aurreko edizioetan onartutako jardunbide egokiko proposamen bat, ezta pertsonalizazioaren printzipioekin bat ez datozenak ere.

Laugarren oinarria. — Proposamenak aurkezteko dokumentazioa

Parte hartu ahal izateko, jardunbide egokia deskribatzen duen txosten labur bat egin beharko da, jarraibide hauei jarraituz:

Aintzatespenerako aurkezten diren ekimenen txostenek gehienez 5 orrialdeko luzera izango dute, guztira 2.500 hitz gainditu gabe.

Baldintza hori betetzen ez duten hautagaitzak ez dira ebaluatuko.

Ekimenaren garapenarekin lotutako argazkiak edo material grafikoa erantsi ahal izango da. Horiek izaera osagarria izango dute, alegia, ekimena deskribatzeko aurreikusitako gehieneko luzeraz apartekoak izango dira.

Txostenak euskaraz zein gaztelaniaz aurkeztu beharko dira.

Txostenek honako egitura hau izango dute:

- a) Erakundearen aurkezpena:

Harremanetarako pertsonaren izena, telefonoa eta e-maila, aintzatespen honetarako hautagaitzaren ondoreetarako.

Erakundearen izena, bere jardura garatzen duen iraupen luzeko zainketen eremua, artatutako pertsonen bolumena, enplegatu kopurua eta datu garrantzitsuak eta esanguratsuak.
- b) Praktika onaren titulua eta praktika hori sartu nahi den egiaztapenerako eremua:

Izenburuak labur-labur deskribatu behar du aurkeztutako jardunbide egokia eta iraupen luzeko zainketak pertsonalizatzeko zer esparru zehatzi egiten dio ekarpen handiena, deialdian aurreikusitako 5 ardatz egituratzaileen baitan.
- c) Jardunbide egokiaren garapena:

Abiapuntuko egoera aztertzeke prozesua deskribatu beharko da, bai eta lan-du behar den/diren beharraren/beharren identifikazioa eta jardunbide egokia ezartzeko hedapen-prozesua ere. Mugarri garrantzitsuak eta inbertsioak nabarmenduko dira, erabilitako bitartekoei eta denborari dagokienez. Bereziki azpimarratuko dira izandako zailtasunak eta zailtasun horiei emandako konponbideak (sustatu nahi diren esparruetako ekintzak nabarmenduz), bai eta, hala badagokio, hori gauzatzeko beharrezkoak izan diren lankidetzak ere.

Era berean, ekimenaren balorazio-irizpideei, berrikuntzari, transferigarritasunari, ebaluazioari eta emaitzei buruzko informazioa eman beharko da.
- d) Emaitzak eta eragina:

Lortu diren emaitzak zehaztuko dira, hau da, zergatik den «jardunbide egokia» eta zer ekarpen egin dion erakundeari. Datuak, zifrak, bilakaera-adierazleak, aurreikusitako hedadura eta aurkeztutako jardunbide egokiaren eta deskribatutako emaitzen arteko lotura zuzena frogatzen duen beste edozein informazio gehitu beharko da.

**Bostgarren oinarria. — *Proposamenak aurkezteko modua eta epea***

1. Proposamena aurkeztu behar da, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan (2199 prozedura), www.ebizkaia.eus helbidean.
2. Eskabideak aurkezteko epea 25 egun naturalekoa izango da, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gorabehera teknikoren batek dagokion sistemaren edo aplikazioaren ohiko funtzionamendua eragozten badu, eta arazoa konpondu arte, Administrazioak mugaeguneratu gabeko epeak luzatzea erabakiko du, eta gertatutako gorabehera teknikoak eta amaitu gabeko epearen luzapen zehatza egoitza elektronikoan argitaratu beharko du.

Seigarren oinarria. — *Aitorpena duten jardunbide egokiak hautatzeko irizpideak*

1. Aintzatespenak esleitzeko orduan, irizpide hauek jarraituko dira:
 - a) Praktikaren egokitasuna, pertsonalizazioaren printzipioei eta prebentzio-ikuspegi dagokienez
 - b) Berrikuntza-irizpidea/balio erantsia: esperientziatik abiatuta, aldaketak proposatzen dira arreta-eredu tradizionalekin alderatuta, edo zalantzan jartzen dira esku-hartzearen ikuspegi klasikoak.
 - c) Transferigarritasun-irizpideak: esperientziak baditu elementu eta ezaugarri batzuk erakundearen bertan modu zabalean, baita beste erakunde batzuetan ere, orokortu, errepikatu edo egokitu daitezkeenak
 - d) Ebaluazio- eta emaitza-irizpidea: esperientziak sistema bat du honako alderdi hauen emaitzak ebaluatzeko eta neurtzeko: 1) Eraginkortasuna eta helburuak betetzea 2) Gizarte-eragina 3) Iraunkortasuna eta bideragarritasun tekniko eta
2. Honako egoera hauetakoren batean dauden erakundeek ez dute jardunbide egokiak aintzatestea merezi izango:
 - a) Epai irmoaren bidezko kondena baten ondorioz, diru-laguntza edo bestelako laguntza edo aintzatespen publikoak jasotzeko aukera galdu izana
 - b) Konkurtsoaren adierazpena eskatu izana, edozein prozeduratan kaudimengabearen adierazpena jaso izana, konkurtsoaren adierazpena jaso izana, salbu hitzarmen baten eraginkortasunez lortu bada, esku-hartze judizialaren menpean egotea edo Lege Konkurtsalaren arabera desgaituak gertatu izana, konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako desgaitasun-epea artean amaitu barik dagoela.
 - c) Direlako pertsona edo entitateak errudunak direla adierazi deneko auziren batengatik, Administrazioarekin sinaturiko edozein kontraturen suntsiarazpen irmoa eragin izana.
 - d) Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak bateraezintasun kasuren batean egotea, gai horiei buruzko arauetan ezarritakoaren arabera.
 - e) Indarreko xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak beteta ez izatea, indarreko xedapenen arabera. Aurreko legeroaldean xedaturikoa ez zaie aplikatuko Bizkaiko Lurralde Historikoaren gizarte zerbitzuen sistemak babesturiko kolektiboetako pertsona fisikoei zuzendutako diru-laguntzei.
 - f) Zerga-egoitza arau bidez zerga-paradisutzat harturiko herrialde edo lurralde batean izatea.
 - g) Diru-laguntzen itzulketaren ondoriozko betebeharrak ordaintzeari dagokionez, egunean ez egotea.
 - h) Sexuarengatiko edonolako diskriminaziorik sortzeagatik, zehapen administratibo edo penalen bat jaso izana, zehapenean ezarritako epean zehar.
 - i) Sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta sexu-indarkeriak prebenitzeko eta horiei aurre egiteko neurriak jasotzen dituzten berdintasun-planak,



protokoloak eta/edo dokumentuak edukitzeko betebeharra ez betetzea, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko araudian ezarritakoaren arabera.

- j) LGTBI pertsonen eta beste kolektibo batzuen diskriminazioa egiteagatik zehapen administratibo edo penala jaso izana, dagokion zehapenean ezarritako al-dian, edo tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko indarreko arau-dia ez betetzeagatik.

3. Erakundeek aurkeztutako jardunbide egokiak aitortzeko eskaerak ez dira balora-tuko, baldin eta 2026an gizarte-zerbitzuen arloko zehapen-prozedura bat hasita badute, harik eta prozedura hori berariazko ebazpen irmo baten bidez amaitu arte, erakunde eskatzaileari egotz dakizkiokeen arau-hauste larriak edo oso larriak alde batera uzteko.

4. Aitorpena eman ondoren, eta 2026an gertatutako gertakariei buruzko ikuska-pen-prozedura baten ondorioz, aitortutako erakundea ebazpen irmo baten bidez zeha-tuko balitz, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean tipifikatutako arau-hauste larriak edo oso larriak egiteagatik, zehapen horrek emandako aitorpena gal-tzea ekarriko luke.

Zazpigarren oinarria. — Ebaluazio-batzordea

1. Ebaluazio-batzordea arduratuko da aurkeztutako proposamenak ebaluatzeaz eta dagozkien emakida-proposamenak lantzeaz. Horrez gain, batzordearen osieran Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 22.2 artikuluan ezarritakoa beteko da.

Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru sektore publikoaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituen Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuaren hirugarren xe-dapen gehigarrian epaimahaien eta batzordeen osarari buruz xedatutakoa beteko da.

2. Ebaluazio-batzordeak kide hauek izango ditu:

- Bizkaiko Foru Aldundiko funtzionarioa, Bizi-luzetasunaren eta Erronka Demografi-koaren Zuzendaritza Nagusiak izendatzen duena. Pertsona hori saioetako burua izango da.
- Bizkaiko Adinekoen Kontseiluko burua, edo hark eskuordetzen duen Kontseiluko kidea.
- Bizkaiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko langileek izendatutako pertsona bat.
- Adinekoen Zentroen Batzorde Iraunkorrak izendatutako pertsona bat.
- Mendekotasuna edo desgaitasuna duen pertsonaren zaintzaile bat, ebaluazio-ba-tzordeko gainerako kideek hautatua, pertsonalizazio-prozesuak hasi dituzten eta ebaluazio-batzorde horretan borondatez parte hartu nahi duten erakundeetako eta erakundeetako erabiltzaileen zaintzaileen artean.
- Bizkaiko Gizarte Langintzaren Elkargoak izendatutako pertsona bat
- Bizkaiko Erizaintza Elkargoak izendatutako pertsona bat.
- Bizkaiko Psikologia Elkargoak izendatutako pertsona bat.
- Bizkaiko Medikuen Elkargoak izendatutako pertsona bat.
- Zahartzaroa-Geriatria eta Gerontologia Euskal Elkargoak izendatutako pertsona bat.
- Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen ordezkari bat, erakunde horrek izen-datua.
- Bi profesional, pertsona fisikoak, Gizarte Ekintza Saileko foru diputatuak proposa-tuta izendatuak, iraupen luzeko zainketen arloan ospe handia dutenak eta kargu instituzionalak betetzen ez dituztenak.

3. Idazkaria Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saileko funtzionario bat izan-go da, hitzarekin baina botorik gabe. Parte hartuko duena.

4. Ebaluazio-batzordeak erabakiko du aintzatespenak eta/edo aipamenak ematea, hala badagokio, gehiengo soilez.

**Zortzigarren oinarria. — Ebazpena**

1. Horretarako eratutako ebaluazio-batzordeak ebaluazioa eta proposamena egin ondoren, Gizarte Ekintza Saileko foru diputatuak emango du aintzatespenak emateko ebazpena.

2. Ebazpen hori emateko eta jakinarazteko gehieneko epea 45 egunekoa izango da, proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe hori igaro eta ebazpenik eman ez bada, eskabidea ezetsizat joko da administrazio-isiltasunez.

3. Ebazpenak administrazio-bidea agortzen du, eta, 39/2015 Legearen 114., 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoaren arabera, interesdunak aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango dio Gizarte Ekintzako foru diputatuari, hilabeteko (1) epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Era berean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahalko da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren aurrean, bi (2) hilabete ko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatuta, kontuan harturik zer ezartzen duen Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

Ezin izango dira bi errekurtsook aldi berean jarri.

Bederatzigarren oinarria. — Jendeaurreko azalpena

Hautatutako proposamenek ekitaldi publiko batean azalduko dute beren jardunbide egokia.

Onetsiriko erakundeei «Bizkaiko Iraupen Luzeko Zainketak pertsonalizatzeko jardunbide egokia»ren aintzatespena emango zaie.

Aintzatespen horietan parte hartuko duten erakundeek konpromisoa hartuko dute aurkeztutako dokumentuak eta materialak Bizkaiko Foru Aldundiari lagatzeko, jardunbide egoki gisa zabaldu ahal daitezen.

Halaber, erakundeek trukean beren gutunetan, idazpuruetan, komunikabideetan eta abarretan lortutako aintzatespena aipatu ahal izango dute, zer aintzatespen lortu duten eta noiz, urtea, zehaztuta.